


1. SEKTOREAREN AZTERKETA

ZUMAIA



2017

AURKIBIDEA.

1. SARRERA	4
1.1 HELBURUA	4
1.2 METODOLOGIA	4
2. ZUMAIA	4
2.1 HERRIA	4
2.2 GEOGRAFIA	4
2.3 DEMOGRAFIA	5
2.4 EKONOMIA	8
3. LEHEN SEKTOREA	11
3.1 BASERRIAK	11
3.2 ESPLOTAZIO MOTAK	15
3.3 SALMENTA BIDEAK	19
3.4 LURZORUAREN ERABILERA	21
3.5 ZIURTAGIRIAK	24
3.6 ESTALDURA, KIDETZA	25
3.7 PROFESIONALITASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA	26
3.8 TRANSFORMAZIO GUNEAk ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA	27
3.9 ONDORENGOTZA	28
4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA	30
4.1 ZUMAIKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK	30
4.2 ZUMAIKO JATETXE ETA TABERNAK	32
4.3 ZUMAIKO JANGELA KOLEKTIBOAK	34
5. AZOKA	35
6. BEHARRA, PROPOSAMENAK, ESKAERAK	36

6.1 OIKIA	36
6.2 ARRITOKIETA	37
6.3 ARTADI	38
6.4 TXIKIERDI	38
6.5 BASUSTAGAIN	39
6.6 ELORRIAGA	39
6.7 OROKORRAK	40
7. EKINTZA PLANA	41

1. SARRERA.

1.1 HELBURUA:

Zumaia udalaren helburuen artean dago lehen sektorea indartzea eta baserritarrak eta bertako produktuak balorean jartzea.

1.2 METODOLOGIA:

Bi eratako informazio iturri erabili ditugu txosten hau garatzeko orduan:

1. Estatistika serie ofizialak: Grafikoak eta taulak partekatzen dira txostenean, aztertutako datuen interpretazioa errazagoa eta garbiagoa izateko. Hauek informazio iturri ezberdinetatik jasotako datuekin osatu ditugu, esaterako, Wikipedia, Zumaia udala, www.foro-ciudad.com, Eustat (Euskal Estatistika erakundea), Gipuzkoako Foru Aldundia, www.gipuzkoa.net, INE (Estatistikako institutu nazionala), Geovisor Euskadi, Gipuzkoa irekia, LurData, www.gaindegia.eus, Lanbide.

2. Elkarriketa pertsonalak: Azterketarako beharrezkoak genituen datuekin, inkesta eredu bat osatu dugu, baserriz baserri egindako elkarriketetan informazioa jasotzeko erabili duguna. Elkarriketak, 2017ko Martxoak 15ean hasi eta 2017ko Apirilaren 11 bitartean egin ditugu. Azterketaren berri emateko, Zumaia udaletik, bilera batetara deitu zitzairen baserritarrei. Bilera horretan adostu zen norekin elkartuko ginen. Baserritar denekin telefono bitartez jarri gara kontaktuan. Auzoka banatu ditugu eta banan bana denekin hitz egiten saiatu gara, orokorrean atseginez hartu gaituzte. Adostutako zerrendan dauden eta elkarriketak egin ez ditugun ustiaketa ere badaude; hau bi arrazoiengatik gertatu da, bata titularrak hitz egiteari uko egin diotelako (adindu pertsonak direlako edota ez direlako sektoretik bizi) eta bestea ezin izan garelako beraiekin kontaktuan jarri (kontaktua gaizki dugulako edo ez dutelako deia erantzun).

2. ZUMAIA.

2.1 HERRIA:

Zumaia, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko udalerri euskaldun bat da, Urola Kosta eskualdean eta itsasertzean kokatua.

2.2 GEOGRAFIA:

2.2.1 Ingurune naturala:

Urola ibaia udalerri honetan itsasoratzen da, kostaldean Itzurun hondartza aipatzekoa da. Baina herriaren ikur naturala Zumaia Flysch-a edo kostaldeko egitura geologiko berezi eta ikusgarria da, mundu osoan bakarrenetarikoa dena.

2.2.2 Mugakideak:

Iparaldean Bizkaiko golkoarekin egiten du muga, hegoaldean aldiz Aizarnazabal eta Zestoarekin. Ekialdean, Getariako Askizu auzoa dugu, non mendixka batetik Zumaiaren sarrera eta Getaria ikusten diren. Mendebaldean, Itziar eta Debarekin egiten dugu topo.

2.2.3 Auzoak:

Biztanle gehienak herriaren erdigunean bizi dira, nahiz eta kanpo aldean bizigune gehiago egon. Kanpo aldean direnetatik, ARTADI eta OIKIA auzoak nabarmentzen dira biztanleriari dagokionez. Artadi mendixka batean dago, eta hango San Migel elizatik Zumaiaren ikuspegi ona goza dezakegu. Leku beretik eginda, baina oraingoan hegoalderantz Oikia auzoa dago, San Bartolome eliza eta Kondekua etxea nabarmen dituen, hirugarren auzo bat ere badago, Donostiatik Bilborako errepidean, NARRONDO.

Hiru auzo hauek: ARTADI, OIKIA eta NARRONDO ez dira dauden bakarrik, baina bai garrantzitsuenak. Hauez gain, ARRITOKIETA, TXIKIERDI eta BASUSTAGAIN aurkitzen ditugu.

2.3 DEMOGRAFIA:


2.3.1 Biztanlegoaren bilakaera 1900-2016:

1900 urtetik gaur egunera, Zumaia biztanleriaren hazkundea handia izan da 2016ko datuekin konparatuta. 1900 urtean, 2404 biztanle zeuden eta 2016an 9840, %409 gehiago.

ZUMAIKO BIZTANLEGOAREN BILAKAERA 1900-2016			
Urtea	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Guztira
2016	4.873	4.967	9.840
2015	4.866	4.932	9.798
2014	4.846	4.888	9.734
2013	4.774	4.852	9.626
2012	4.750	4.831	9.581
2011	4.700	4.761	9.461
2010	4.648	4.689	9.337
2009	4.633	4.652	9.285
2008	4.526	4.573	9.099
2007	4.469	4.507	8.976
2006	4.403	4.434	8.837
2005	4.364	4.375	8.739
2004	4.355	4.350	8.705
2003	4.337	4.319	8.656
2002	4.300	4.260	8.560
2001	4.217	4.238	8.455
2000	4.185	4.207	8.392
1999	4.157	4.173	8.330
1998	4.153	4.152	8.305
1996	4.143	4.138	8.281
1995	4.150	4.128	8.278
1994	4.140	4.115	8.255
1993	4.140	4.129	8.269
1992	4.120	4.099	8.219

1991	4.086	4.076	8.162
1990	4.106	4.078	8.184
1989	4.098	4.059	8.157
1988	4.088	4.063	8.151
1987	4.068	4.036	8.104
1986	4.039	4.025	8.064
1981	0	0	7.700
1970	0	0	6.303
1960	0	0	4.493
1950	0	0	3.541
1940	0	0	3.434
1930	0	0	3.144
1920	0	0	2.900
1910	0	0	2.668
1900	0	0	2.404

Taula 1. Zumaiaiko biztanlegoaren bilakaera 1900-2016. (Iturria: www.foro-ciudad.com)



Grafikoa 1. Zumaiaiko biztanlegoaren bilakaera 1900-2016. (Iturria: www.foro-ciudad.com).

2.3.2 Biztanlegoaren dentsitatea:

2016 urtean, Zumaia 9840 biztanle zituen eta 11,28 kilometro karratuko azalera. Hau horrela izanik, 872,34 biztanle ditu kilometro karratuko.


Zumaiaiko %49,52a gizonezkoa zen eta %50,48a emakumezkoa.

2015 urtean, EAEn, 2.189.257 biztanle zeuden 7.234 kilometro karratuko azalera batean, beraz 302,63 biztanle zeuden kilometro karratu bakoitzean. Gipuzkoako kasuan, 716.834 biztanle zeuden 1997 kilometro karratutan, hau da 358,95 biztanle kilometro karratuko.

Landa eremuaren biztanleria dentsitatea orokorra daukagu, Gipuzkoa mailan eta 104.617 pertsonakoa da, hau da guztiaren %15,1a. (Datu hauek INE bidez jakin izan ditugu).

ZUMAIKO BIZTANLEGOA. SEXU ETA ADINAREN ARABERAKOA 2015			
Urtea	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
0-4	299	283	582
5-9	315	277	592
10-14	248	271	519
15-19	239	225	464
20-24	214	219	433
25-29	249	246	495
30-34	314	314	628
35-39	450	442	892
40-44	393	362	755
45-49	380	370	750
50-54	372	354	726
55-59	323	338	661
60-64	320	281	601
65-69	261	266	527
70-74	182	199	381
75-79	120	147	267
80-84	111	166	277
85-	76	172	248
Guztira	4.866	4.932	9.798

Taula 2. Zumaiaiko biztanlegoa. Sexu eta adinaren arabera 2015. (Iturria: www.foro-ciudad.com).



Grafikoa 2. Zumaiaiko biztanlegoa. Sexu eta adinaren arabera 2015. (Iturria: www.foro-ciudad.com).

Biztanleriaren sexu eta adinaren datuetan oinarrituz, esan daiteke biztanleriaren %31,49a 0-29 urteen artean dagoela, %51,16a 30-64 artean eta %17,35a 65 urtetik gorakoak direla. Datuak horrela, orokorrean biztanleri gaztea dela esan dezakegu.

2.4 EKONOMIA:


Argitaratuta dauden azken datuak kontuan hartuta, Zumaia, Urola Kosta, Gipuzkoa eta Euskal Autonomi Erkidegoko datuak alderatuko ditugu.

2.4.1 Balio Erantsi Gordina (BEG):

2012ko datuei begirada bat botatzen badiogu, industria sektoreak duen garrantzia ikus dezakegu, nahiz eta sektorerik garrantzitsuena zerbitzuena izan. Nekazaritza da pisu gutxien duen sektorea.

BALIO ERANTSI GORDINA (%)					
	Urtea	Zumaia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2012	0,30	2,30	0,70	0,80
Industria sektorea	2012	49,40	35,00	28,60	24,20
Eraikuntza sektorea	2012	13,90	8,00	6,90	7,00
Zerbitzu sektorea	2012	36,50	54,70	63,80	68,00

Taula 3. Balio Erantsi Gordina 2012. (Iturria: Eustat, Zumaia udalmap).



Grafikoa3. Balio Erantsi Gordina sektoreka, Zumaia 2012. (Iturria: Eustat, Zumaia udalmap).

2.4.2 Okupazio tasa:

2015 urtean, okupazio tasarik baxuena Zumaian, Urola Kostan, Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan nekazaritza sektorean izan zen eta altuena berriz zerbitzuen sektorean.

16 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLE LANDUNAK (%)					
	Urtea	Zumaia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
Nekazaritza-arrantza sektorea	2015	1,55	2,46	1,39	1,53
Industria sektorea	2015	32,72	28,98	23,24	19,40
Eraikuntza sektorea	2015	5,31	5,95	5,41	5,59
Zerbitzu sektorea	2015	60,40	62,60	69,94	73,46

Taula 4. 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak 2016. (Iturria: Eustat, Zumaia udalmap).




Grafikoa 4. 16 urte edo gehiagoko biztanle landunak sektoreka Zumaian 2015. (Iturria: Eustat, Zumaia udalmap).

2.4.3 Erregistratutako langabezia tasa:

Langabezi tasa modu proportzionalen banatzen da, sektore garrantzitsuenetan tasa altuagoa izanda. Ala nola, 2012ko Abenduaren 31an erregistratutako datuen arabera, Gipuzkoan %63,49ko tasa zegoen zerbitzuetan, %28,56 industrian, eraikuntzan %6,82a eta %1,31, baxuena nekazaritzan.

Langabezia sektoreka Gipuzkoan %



Grafikoa 5. Langabezia sektoreka Gipuzkoan (%). (Iturria: Estatuko Lanerako Zerbitzu publikoa (2012/12/31).


Langabeziaren datu orokorrak, 2015ekoak ditugu, non Zumaian 16 eta 64 urte bitartean %8,13koa zen, eskualdean %7,47a, Gipuzkoan %8,16 eta Euskal Autonomi Erkidegoan %9,77a.

45 urtetik gorakoen langabezi datuak, Zumaian %8,79a, eskualdean %7,67, Gipuzkoan %8,68a eta Euskal Autonomi Erkidegoan %10,18 zelarik.

Epe luzeko 16 eta 64 urte arteko biztanleen langabezi tasa honakoa zen, Zumaian %4,24a, %4,02a eskualdean, %4,61a Gipuzkoan eta Euskal Autonomi Erkidegoan %5,78a (azken datu hauek 2015 urtekoak dira).


ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA TASA(%)					
	Urtea	Zumaia	Urola Kosta	Gipuzkoa	EAE
16-64 arteko biztanleak	2016	8,13	7,47	8,16	9,77
45 urte edo gehiagoko biztanleak	2016	8,79	7,67	8,68	10,18
Epe luzekoa (16-64 urte bitartekoak)	2015	4,24	4,02	4,61	5,78

Taula 5. Erregistratutako langabezia tasak (%) 2015. (Iturria: Eustat, Zumaiaiko udalmap).



Grafikoa 6. Erregistratutako langabezi tasak (%) 2015. (Iturria: Eustat, Zumaiaiko udalmap).

Langabezia tasa 1.sektorean hitz egiten dugunean, Gipuzkoa mailan 817 pertsonakoa da, Urola Kostan 154 eta Zumaian 20.



Grafikoa 7. Erregistratutako langabezia tasa 1.sektorean (pertsona kopurua) 2015. (Iturria: Eustat).

3. LEHEN SEKTOREA.

3.1 BASERRIAK:

Elkarriketak egiten hasi aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu Zumaian herrian erroldatuta dauden baserrien zerrenda bategitea, honela guztiak identifikatuta eduki eta elkarriketa nori egin erabakitzeke.

Lan hau egiteko, baserri guztien lagin bat erabili nahi izan dugu eta zein baserri aukeratu erabakitzeke irizpide ezberdinak hartu ditugu kontuan. 0,2 NLU, lehen bilerara etorri ziren baserritarrak, azokako ekoizleak eta bileran adostu genituen ekoizleen sailkapen bat egin genuen, gure azterketa aurrera eramateko beharrezkoak zirela iruditu baitzitzaigun.

Lehen azpi sailkapen bat egiteko, guk genituen datuak erabili ditugu; bertan bakoitzaren NLU-ak (Nekazaritza Lan Unitateak) izan ditugu kontuan. Kasu honetarako 0,2 NLU-tik gorako baserriak hartu ditugu, beraiekin hitz egitea interesgarriagoa iruditu zaigulako gure azterketarako.

Zumaia udalarekin lan honen baitan hitz egiten hasi ginenean, argi genuen guztiok, elkarriketak egiten hasi aurretik baserritarrei/ekoizleei proiektu honen berri eman behar geniola. Horretarako, herriko baserrietara gutun bat bidali zen udaletxetik bilera batera deialdia eginez. Bilera honetara agertutako baserritarrak ere elkarriketak egiteko sailkapenera gehitu ditugu, beraiek azaldu duten interesa dela eta.

Bileran, bertaratu zirenekin hitz egin genuen gure lehen sailkapenaren baitan, beraiekin errepaso bat egin genuen eta beraiek lagundu ziguten adosten norena joatea zen egokia lan hau aurrera ateratzeko. Hitz egin genuen baita ere, badaudela esplotazio batzuk Zumaia herrira ematen ez dutenak, baina beraien hurbiltasunagatik bizia Zumaian egiten dutenak eta beraiekin ere hitz egitea komenigarria izango litzatekeela erabaki genuen.

Sailkapen honekin amaitzeko, egokia iruditu zaigu Zumaia azokan postua duten ekoizleekin hitz egitea, horregatik gure sailkapenean sartu ditugu. Azokan, bi ekoizle egoten dira, bata Zumaia eta bestea kanpoko, dena den biekin hitz egitea erabaki dugu.

Azpi sailkapen hau egin ostean, 51 baserri/ekoizleren taula orokor bat egin dugu. 51 horietatik, 45 Zumaia dira eta 6 kanpokoak.

Identifikazio honekin amaitu ostean, beraiekin kontaktuan jartzen saiatu gara. Zumaia 45 ekoizletik, 27rekin elkartzeari lortu dugu eta kanpoko ekoizleen kasuan, seitek bostekin. Hau horrela, guztira 32 ekoizlerekin bildu gara.

Gu izan gara beraiegana bertaratu garenak, ondo etortzen zitzaaien egun eta orduan, eta beraiek esandako tokira, baserritarrei/ekoizleei dena errazagoa izateko.

3.2 ESPLOTAZIO MOTAK:


Elkarrizketak burutu ondoren, jarduera tipologia ezberdinen arabera sailkapen bat egin dugu, guztira sei jarduera ezberdinetan sailkatu ditugu. Kontuan hartzeko interesgarria iruditu zaigu, landa eremuan edo baserrian bizi diren pertsonak baina jarduerarik ez dutenak edo lehen sektoretik bizi ez direnak sailkapenean sartzea.

Sailkapen hau egiterakoan, argitu beharra ikusten dugu, Zumaia biztanleen elkarrizketak hartu ditugula kontuan, puntu honetan Zumaia esplotazioengatik hitz egin nahi dugulako.

Guzti hau horrela izanda, esplotazioei buruz hitz egingo dugun puntuetan 28 baserri/esplotaziohartuko ditugu kontuan.

Baserri batzuek, jarduera bikoitza, hirukoitza edo gehiago egiten dutela kontuan hartu behar dugu.

Emitza hauek ikusiaz, esan genezake Zumaia jarduera nagusia abeltzaintza dela, 15 ekoizlerekin. Baratza lantzen duten esplotazioak hiru dira eta hiru dira baita ere frutarbolak lantzen dituztenak. Gutxien lantzen diren jarduerak lore/landareena eta animalien espektakuluena da, bakoitza ekoizle batekin. Ikus dezakegu landa eremuan ostatuak lantzen direla, kasu honetan hiru esplotazio ezberdinek. Azpimarratzekoa iruditzen zaigu, jarduerarik ez duten baserrien kopurua altua dela, guztira zortzi.




Grafikoa 8. Baserrien jarduera tipologia.

BASERRIEN JARDUERA TIPOLOGIA %							
Jarduera	Baratza	Frutarbolak	Abeltzaintza	Lore/Landarea	Ostatua	Animalien esp.	Jarduera eza
Portzentaia	%8,82	%8,82	%44,13	%2,94	%8,82	%2,94	%23,53

Taula 6. Baserrien jarduera tipologia (%).

Aurreko sailkapena egiterakoan, argitu beharra ikusten dugu, jardueraren bat dutela aipatzen dugunean, baserrian jarduera horretatik diru sarreraren bat jasotzen dutela dela eta jarduera eza aipatzean ez dagoela diru sarrerarik.

Esan beharra dago, jarduerarik ez daukaten baserriak nahiz jardueraren bat daukatenak, beraien kontsumorako ere lantzen dutela.



Grafikoa 9. Baserrien jarduera kopurua.

Goiko grafikoa kontuan hartuta, ikus dezakegu 28 esplotaziotik 14k jarduera bakarrik daukatela; laurek bi jarduera. Lau eta bost jarduera dituzten ustiaketa bana dira eta jarduerarik ez daukatenak zortzi.

Baserriko jardueretatik diru sarrerarik ez dutenen artean, bakarria dago ez duena ez baratzerik ezta animaliarik ere. Bostek animaliak (normalean terrenoak garbitzeko) eta baratza daukate. Bakarria da baratza bakarrik duena eta bat da baita ere baratza, animaliak (lur sailak garbitzeko) eta frutarbolak autokontsumorako dituenak.


3.2.1 Baratzagintza:

Bildu garen ekoizle guztien artean, hiru ekoizle dira baratza lantzen dutenak. Azaldu beharra ikusten dugu, hauetariko batek, Karakas esplotazioak, babarruna bakarrik lantzen duela salmentarako eta Tolosako Babarrun elkarte dago.

3.2.2 Frutarbolak:

Hiru ekoizlek bakarrik lantzen dute. Batek sagarrak ekoizten ditu eta beste biek mahatsak.

3.2.3 Abeltzaintza:



Grafikoa 10. Abeltzaintzaren jardueraren banaketa azpi jardueretan.

Abeltzaintza lantzen duten ekoizleetatik, hamahiru dira azpijarduera bat lantzen dutenak, hauetatik bederatzik okeletarako behiak, birek esnetarako eta beste birek arkumeak. Ekoizle bakarra da esnetarako eta okeletarako behiak dauzkana eta batek bakarrik ditu okeletarako behiak eta arkumeak.

3.2.4 Lore/landareak:

Ekoizle bakarrik lantzen ditu. Ez da honetara bakarrik dedikatzen, baratza ere lantzen du baina bere jarduera nagusia da.

3.2.5 Ostatua:

Hiru esplotaziotan dago ostatua, baina guztira sei establezimendu ezberdin aurkitzen ditugu. Lehenengo esplotazioan, Jesuskoan apartamentuak eta landetxea aurkitzen ditugu; bigarrenengoan, Santa Klaran, nekazalturismoa, landetxea eta apartamentuak; eta azkenengoan, Karakasen nekazalturismoa.

Nabarmendu, Jesuskoa dela ostatua bakarrik lantzen duena, beste biak beste jarduera batzuk ere lantzen dituzte.


Adierazi, nekazalturismo bat edukitzeko, beharrezkoa dutela lehen sektoreko aktibitatearen bat edukitzea eta landa etxeak eduki dezake baina ez dago lege behartuta.

3.3 SALMENTA BIDEAK:

Salmenta bideak aztertzerakoan, egokiena jardueraren araberako sailkapena (ikus 8 grafikoa, 13. orrialdea) jarraitzea iruditu zaigu eta horrela salmenta jarduera ezberdinetan aztertu.

3.3.1 Barazkien salmenta:

Esan bezala, barazkiak hiru ekoizle ezberdinek lantzen dituzte eta salmenta bideak ere hiru ezberdin agertu dira.



Grafikoa 11. Barazkien salmenta bide ezberdinak.

Ekoizle batek bakarrik egiten du azokan soilik salmenta; beste ekoizle batek, azokan saltzeaz gain bere mintegian ere salmenta puntu bat dauka eta azken ekoizlearen kasuan, Tolosako babarrunarekin egiten du lan eta Tolosako Babarruna izendapenera saltzen du.


3.3.2 Fruten salmenta:

Puntu honetan sagarrak eta mahatsak saltzen dituzten hiru ekoizle ditugu; sagarrarekin lan egiten duen ekoizle bat eta bi mahatsekin jarduten dutenak. Sagarrarekin lan egiten duen ekoizleak, sagardogile bati saltzen dio sagarra eta mahats ekoizleek, biek, txakolindegri bati (bakoitzak txakolindegri ezberdin bati saltzen dio).

3.3.3 Abeltzainen salmenta:

Abeltzainen salmenta ezberdinak aztertzeko, lehen egindako banaketa (ikus 10 grafikoa, 15.orrialdea) kontuan hartzea erabaki dugu. Banaketa horretan ikus daitekeen moduan, ekoizle bat dago esne eta haragitarako behiekin lan egiten duena eta beste bat okeletarako behiak eta arkumeak lantzen dituena. Bi ekoizle hauek, lantzen dituzten bi azpi jardueretako salmentan hartu ditugu kontuan.


Haragitarako behiez hitz egitean, hamaika ekoizle ezberdinez ari gara hitz egiten. Hauek aztertzerakoan, salmenta bide ezberdinak agertu dira.



Grafikoa 12. Haragitarako behien salmenta bideak.

Ikus dezakegunez, gehiengoak, 4 ekoizlek, txahalak 4-5 hilabete dituztela gizendegi batetara saltzen dituzte. 3 ekoizle dira, txahala harakinari saltzen diotenak. Bi ekoizle daude maiorista bati saltzen diotenak eta bi dira baita ere hiltegia saltzen/eramaten dituztenak.

Esnetarako behiez hitz egiten dugunean, 3 ekoizle aurkitzen ditugula aipatu dugu. Hiruak salmenta Kaikuri egiten diote, baina badago ekoizle bat Kaikuri egiteaz gain, taberna/gozotegi batetara egiten duena eta baita ere bezero finkoak dituenek, beraiei zuzenean egiten die salmenta.



Grafikoa 13. Esnearen salmenta bideak.

3.3.4 Lore eta landare salmenta:

Jarduera hau burutzen duen ekoizle batekin elkartu gara. Bi salmenta bide ezberdin ditu, batetik herri ezberdinetako azoketan eta bestetik bere mintegian.

3.3.5 Animalien espektakuluak:

Lan honetan diharduen batekin egon gara eta ez du salmentarik egiten. Espektakulua Euskal Herriko herri ezberdinetako plazetan egiten dute.


3.4 LURZORUEN ERABILERA:

Urola Kostako laborantza azalera guztira 21.799,12 hektareatakoa da. Azalera hamaika herrialdetan dago banatua. Horrela da banaketa horren emaitza: Aia %16,77; Orio %1,99; Zarautz %3,39; Getaria %3,28; Zumaia %2,30; Aizarnazabal %3,04; Zestoa %14,33; Azpeitia %23,59; Azkoitia %18,41; Beizama %3,96 eta Errezil %8,94.




Grafikoa 14. Urola Kostako laborantza azalera banaketa herriz herri hektareatan 2016 (Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

Hurrengo grafikoan (grafikoa 15) **Urola Kostan alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak** zein diren ikusi ahal dugu eta bakoitzak zein eremu kantitate okupatzen duten. Lur eremu handiena baso eremua da, 13.001,49 hektarearekin eta ondoren bazka-landareena 7.266,75 hektarearekin. Eremu txikiena berriz loreena da 1,45 hektarearekin.



Grafikoa 15. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Urola Kostan hektareatan 2016.
(Iturria:GFA)

Zumaiko kasuan, eremurik handiena bazka-landareena da, 246,71 hektarearekin eta ondoren baso eremua 193,59 hektarearekin. Aipatzekoa da, loreen kasuan ez dagoela eremurik, hektarearik.




Grafikoa 16. Alta emanda dauden lurren erabilera ezberdinak Zumaian, hektareatan, 2016.
(Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia).

3.4.1 Ekoizleen lurrak:

Gaur egungo ekoizle bakoitzaren lur sailen egoera aztertzeko, beraiekin hitz egindakoari erreparatzea pentsatu dugu.


Puntu hau aztertzeko, bertako 27 ekoizleen datuak aztertu ditugu lehenik (azterketan ez dugu sartu telefonoz datuak eman zizkigunak, datu faltagatik).

Lehenik ekoizleen egungo egoerari erreparatuko diogu.



Grafikoa 17. Ekoizleen gaur egungo egoera.

Ekoizle denetatik, 15 dira beraien lur guztiak erabiltzen dituztenak; bederatzi beraienaz gain gehiago ere erabiltzen dituzte. Ekoizle bakarra dago lurrak erabiltzen ez dituenak, baina lur horiek ez ditu inork aprobetxatzen. Hiru ekoizle daude beraien lurrak utzita dituztenak.



Grafikoa 18. Ekoizleen lurren egoera.

Bost ekoizle agertu dira lurrak uzteko prest eta ekoizle batek gaur egun lur denak erabiltzen dituela baina libre edukiz gero uzteko prestutasunarekin. Bederatzi ekoizlek, ez dituzte beraien lurrak utziko, ez orain eta ezta gero ere. Badaude zortzi ekoizle ez dakitenak lurrak utziko lituzketen, gaur egun lur denak erabiltzen dituzte eta erabili gabe dauden momentu hori iristean hartuko dute utzi edo ez uzteko erabakia. Azkenik, hirur ekoizle daude ez dutenak aukera honetan pentsatu, hirurak ondorengotza dute jarraitzeko edota beraiek dira ondorengotza.

Aipatu beharra dago, ekoizle bat baino gehiagok aipatu dutela lur falta bat dagoela eta beraiek lur beharrean daudela.


3.5 ZIURTAGIRIAK:

Puntu hau aztertzerakoan, Zumaiko eta jarduera duten ekoizleak hartu ditugu kontuan, ostatua bakarrik lantzen dutenak ere kanpoan utzi ditugu. Hau horrela izanik, guztira 19 ekoizleren datuak aztertu ditugu.

Zumaiko ekoizleen artean parekotasun handia dago ziurtagiriek edo ziurtagiri gabe lan egiten dutenen artean. Bederatzi ekoizlek daukate ziurtagiria eta hamarrek ez.

Hiru ekoizle daude frutarbolekin lan egiten dutenak, birek txakolinerako mahatsa lantzen dute, hauen frutuarekin egiten den txakolinak “Getariako Txakolina” barruan daude eta hirugarren ekoizleak sagarra lantzen du eta ekologiko zertifikazioa dauka.

“Xata Roxa” ziurtagiria, Asturiasekoa dauka ekoizle batek eta beste seik “Eusko Label” zertifikazioa daukate.



Grafikoa 19. Ekoizleen ziurtagiri ezberdinak.


Aurreko grafikoaren azalpen bat:

1. Ekoizle batek, azpisektore bat baino gehiago lantzean, ziurtagiri bat baino gehiago dauzka.

3.6 ESTALDURA KIDETZA:

3.6.1 Estaldura:

Puntu honetan, jarduera duten hogeita ekoizleetatik, baten egoera da ez dakiguna (telefonoz egon ginen ekoizlea), beraz 19 ekoizleren erantzunak landuko ditugu.



Grafikoa 20. Nekazal gizarte aseguru.


Elkarriketa hauetan jaso ahal izan ditugun datuen arabera, esan genezake Zumaiako ekoizleak, orokorrean, gizarte asegurantza aldetik babestua eta era egokian daudela.

Ekoizle guztietatik, 13 ekoizlek, Nekazal Gizarte Aseguruaren barruan garatzen dutela adierazi digute, lau ekoizlek ezezkoa agertu duten bitartean. Bi ekoizle, ez dira zehatz beraien egoera zein den adierazteko gai izan.

3.6.2 Kidetza:

Jarduera duten hoge ekoizletik, zazpi dira elkarteren baten parte ez direnak.

Gelditzen diren ekoizleetatik, bost elkarte bakar bateko partaide dira eta bost dira baita ere biren parte direnak. Hiru elkarteko parte, ekoizle bakar bat dago eta hiru elkarte baino gehiagoko parte dena ere bakarra da. Badago ekoizle bat ez daukaguna beraren daturik.



Grafikoa 21. Baserritarren kidetza.

Nekazal sindikatuen presentzia nabarmena da, sei ekoizle EHNE sindikatuaren kide dira eta ekoizle bat ENBAkoa. Nabarmentzekoa ere, Nekazal sindikatuen gain, ELA sindikatua agertzen dela, ekoizle bat da bertako parte.

3.7 PROFESIONALITASUN MAILA ETA LANGILE KOPURUA:

3.7.1 Profesionaltasun maila:


Zumaia ekoizleen zerrendatik, bat kanpoan utzi dugu datu faltagatik eta beste batek etxe berean bi esplotazio ezberdin ditu.

Guztira, beraz, 27 ekoizle aztertu ditugu.

27 ekoizletik, 11 dira autonomo bezala dihardutenak, hauetatik denak bat ezik, Nekazal Gizarte Aseguruan alta emanda daudelarik. Guztiak ez dira jarduten beraien ustiaketan soilik lanean.

Aztertutako 27tik, lau dira jubilatutik daudenak eta hauetatik hiruek gaur egun ez daukate jarduerarik. Hamar ekoizle dira beste batentzat lanean daudenak eta hauetatik hiruek ez daukate esplotazioan jarduerarik. Gelditzen diren beste zazpiak, lehen sektorearekin zerikusirik ez daukaten lanetan dabilta, nahiz eta etxean aktibitatea eduki.

Esplotazio guztien artean, bakarra dago elkarte bezala funtzionatzen duena.




Grafikoa 22. Ekoizleen profesionaltasun maila.

3.7.2 Langile kopurua:

Jarduera duten 19 ekoizleren erantzunak dauzkagu (ekoizle baten erantzunik ez dugu, telefonoz hitz egin genuena). Hauetatik 13 dira langilerik ez dutenak, beraiek bakarrik egiten dute lan eta gehiengoaren kasuan, etxekoek, familiakoek laguntzen diete.

Hiru ekoizlek daukate langile bat kontratatuta (kasu batean autonomo bezala dagoen pertsona bat dauka kontratatuta eta beste kasu batean udara partean kontratatzen dute, lan gehiago daukatenean). Bi ekoizle dira bi langile dituenak eta ekoizle bakar batek dauka hiru langile edo gehiago.



Grafikoa 23. Ekoizleak dauzkaten langile kopurua.

3.8 TRANSFORMAZIO GUNEAk ETA PRODUKTUEN BALIO ERANTSIA:

Puntu hau aztertzerakoan, bi ekoizle kanpoan utzi ditugu, batak lehen sektoreko jarduerarik ez duelako, ostatua soilik lantzen du eta bestearen erantzunik ez genuelako.

3.8.1 Transformazio gunea:




Grafikoa 24. Transformazioa guneak.

Goiko grafikoan antzeman dezakegunez, 26 ekoizletik lau bakarrik daukate transformazio gunea. Lauak dolarea daukate, hauetako bat elkarriketa eduki genuenean eraikitzen ari ziren, bi ekoizlek ez dute erabiltzen eta batek etxerako egiten du sagardoa, autokontsumorako.

Beste 22 ekoizletatik, inork ez du azaldu denbora epe edota luze batera transformazio gunerik jartzeko ideiarik.

3.8.2 Produktuen balio erantsia:




Grafikoa 25. Produktuen balio erantsia.

26 ekoizletik, hiruren produktuek bakarrik daukate balio erantsia. Hiruak frutarbolen ekoizleak dira. Batek sagarrak lantzen ditu, saldu eta sagarrekin sagardoa egiten du erosleak. Beste bien kasua aurrekoaren berdina da, aldatzen den bakarra, sagarrak landu beharrean, mahatsa lantzen dutela eta ondorioz txakolina elaboratzen dutela erosleak.

3.9 ONDORENGOTZA:

Nekazal edo baserri jarduerarekin lotuta, ondorengotzak duen garrantzia izugarria da, dagoeneko jarduerak burutzen dituztenak mantentzea ezinbestekoa da, ezagutzen duguna mantendu ahal izateko.

Puntu hau ikertzerakoan eta grafikoa egiterakoan, elkarrizketatu ditugun baserritar guztiak hartu ditugu kontuan, jarduera dutenak eta jarduerarik ez dutenak.



Grafikoa 26. Etorkizunerako egoera.

Grafiko honen arabera, elkarriketatutako zazpi ekoizlek ez dute ondorengotzan pentsatu, oraindik ere urte batzuk gelditzen zaizkie beraiei, beraiek dira momentuko ondorengotza. Hauetako bat orain ez asko hasi da, bera izan da erretiratu den baten ondorengotza eta jadanik esplotazio guztia bere izenean dauka (gaztea da 22 urte dauzka).

Elkarriketatutako ekoizle guztietatik, zazpik argi daukate ondorengotza badutela. Kasu honetan erreleboa familian daukate, ez dago inor kanpoko erreleboa duenik.

28 ekoizle hauetatik, zortzik ez daukate erreleborik. Ekoizle bakar bat agertu da ados kanpoko norbait hasteko, familiako inork ez duela jarraituko eta. Zortzi hauetako beste batek, argi dauka bere semeak hartuko dituela lurrak, gaur egun gurasoak egiten duten bezala, baina autokontsumorako horregatik esan dugu erreleborik ez duela.

Azkenik, badaude beste bost ekoizle ez dutenak erreleboan pentsatu, baina momentua iristean kanpoko norbaitek jarraitzea pentsatuko luketenak (familiako inor ez du jarraituko). Beste ekoizle baten kasua da, orain dena momentua kanpoko inork jarraitu nahi badu berarekin kontaktuan jartzekoa (familian ez dauka inor jarraitzeko eta kanpoko norbaitek jarraitzea ideia ona iruditu zaio).

Ondorio garbi bat atera ahal izan dugu; adin jakin batetik aurrera (60-65 urtetik aurrera) baserritarren gehiengoak ez dira kanpoko inor beraien ustiaketan, lurretan lan egitekoaren alde, nahiago dute 1.sektoreko jarduera bertan behera gelditzea. Alderantzizkoa gertatzen da adin horretatik beherako ekoizleekin, hauei ez lieke axolako familiakoren batek ez badu jarraitzen kanpoko norbaitek jarraitzea.


4. BERTAKO PRODUKTUEN KONTSUMOA

Interesgarria iruditzen zaigu, Zumaiaiko elikagaiekin lan egiten den sektore ezberdinak aztertzea, erabiltzen duten produktua bertakoa den edo ez jakiteko. Horretarako hiru lan ildo aztertu ditugu: elikagaien establezimenduak, jatetxe edota tabernak eta jangela kolektiboak.

Udaletxeak eman dizkigu Zumaiaiko lokal ezberdinen datuak lanean hasteko. Telefonoz jarri gara beraiekin kontaktuan.

4.1 ZUMAIKO ELIKAGAIEN ESTABLEZIMENDUAK:

Guztira 30 elikagai establezimenduren zerrenda eman digu Zumaiaiko udalak. Hauetatik 22rekin lortu dugu kontaktuan jartzea.



Grafikoa 27. Zumaiako produktuen kontsumoa elikagaien establezimenduetan. (Hitz egindakoaren arabera).

Ikus dezakegunez 13 establezimendu dira bertako produktuak saltzen dituztenak beste produktuen artean. Hauetatik, bi izan dira ez digutenak esan nori erosten dioten. Baiezkoa eman duten horietatik lau arrandegiak dira, Getariako portuan erosten dute saltzen duten arrainaren zati bat.

Lau salmenta puntuk esan digute ez dutela bertako produkturik saltzen. Lau horietatik, bat arrandegia da.

Establezimendu batek ez digu erantzuterik nahi izan eta bakarra da baita ere ez dakiena produktuaren jatorria.

Beste hiru ekoizleren kasua da baiezko erantzuna eman eta nori erosten dion galdetzean beste denda/hornitzaile baten izena eman digutenak.

Konprobatu ahal izan dugunez, Euskal Okela baimendutako harategia bakarra da, kontuan hartzeko datua.

Kasu bat topatu dugu, beste hornitzaile bati erosten diola esan duguna, berak ekoizle bati zuzenean erosi beharrean, Zarautzen ekoiztutako produktuekin lan egiten duen denda bati erosten diona.


4.2 ZUMAIKO JATETXE ETA TABERNAK:

Kasu honetan, 53 taberna eta jatetxeren zerrenda bat eman digu Zumaiako udalak.

Zerrenda honetatik, 21 establezimendurekin ezin izan dugu kontaktatu (kontaktu zenbakia gaizki dugulako edota ez digutelako telefonoari erantzun).

Kontaktuan jarri garen 32 jatetxe edo tabernetatik, bost dira janaririk erabiltzen ez dutenak, beraz, guzti hau horrela izanik, 27 establezimenduren erantzunak jaso ditugu ondorengo grafikoa.


Zumaiako produktuen kontsumoa



Grafikoa 28. Zumaiako produktuen kontsumoa jatetxe eta tabernetan. (Hitz egindakoaren arabera).

Aurreko grafikoan (grafikoa 28) ikusi ahal dugun bezala, hitz egindako establezimendu guztietatik 22rek esan digute bertako produktua kontsumitzen dutela eta birek bakarrik adierazi digute ezezkoa. Hiru dira ez dutenak erantzun nahi izan.

Elikagaien jatorria



Grafikoa 29. Zumaiako jatetxe, tabernetan kontsumitutako elikagaien jatorria.

Grafikoa interpretatzerako garaian, kontuan izan behar ditugu pare bat gauza, batetik establezimendu batzuk toki bat baino gehiagotan erosten dutela eta badaudela hiru establezimendu berdinak direnak.

Azokan erosten duen establezimenduak ez du zehaztu ekoizle bati erosten dion zuzenean, saltoki iraunkorretan erosten duen edota ostegunetako azokan erosten duen.

Ekoizleari zuzenean erosten dietenen kasuan, ekoizle/esplotazioaren izena eman digute.

Aipatzeko datua iruditzen zaigu, establezimendu gehiengoko arduradunek, bertako eta garaiko produktuez hitz egiten dugunean, beraientzat herriko denda batean erosteak bertako izena jasotzen duela. Esan dezakegu, bertako eta garaiko kontzeptua ez daukatela bereganatua.

4.3 ZUMAIKO JANGELA KOLEKTIBOAK:

Kasu honetan, ez dugu lan egin udalak bideratutako zerrenda baten bitartez, guk osatu dugu zerrenda.

Hiru ikastetxeetako jangelak dira, bi zaharren egoitzakoak, eguneko zentroko bat eta bestea eta azkena gizarte zentro batekoa.

Aipatzeko datua iruditzen zaigu zazpi jangeletatik guztiak kanpotik ekartzen dutela jatekoa.

Hiru jangelek, katerin bidez ematen dute zerbitzua. Jangela batean azpikontratazio bidez eramaten dute eta bestean berriz aldundiak lehiaketara ateratzen du zerbitzua eta beraiek erabakitzen dute.

Jangela batekin ezin izan dugu kontaktuan jarri.

5. AZOKA.

Zumaia Udalak emandako azokako postuen zerrendan bi ekoizle agertzen dira. Ekoizle hauekin kontaktuan jarri gara eta batekin ahal izan dugu aurrez aurre hitz egitea; bestearekin berriz, telefonoz hitz egitea lortu dugu. Bata Zumaiarra da eta bestea Zestoarra.

Biak bat datoz azokaren egoera txarra dela esaten dutenean. Beraien ustez, gaur egun ezer gutxi egin daiteke hobetzeko, bien kasuan ez daukate ondorengotzik eta gaur egun joaten jarraitzen dute beraien bezero fidelak bertan behera ez uzteagatik.

Azokara joaten diren bi ekoizle hauei egoeraz galdetu diegun bezala, elkartu garen ekoizle guztiekin (Zumaia Udalak eta bertakoak ez direnak) hitz egin dugu azokari buruz. Iritzi orokorra da azoka behea jota dagoela, ez dagoela egoera onean. Hitz egindako ekoizle oro ez dira salmentara azokara joango, gehiengoari denbora galtze bat iruditzen zaie.

Egoera hau justifikatzeko hainbat arrazoi agertu dira:

- * Azoka toki desegoki batean dago.
- * Eraikin berdinean dagoen Eroski supermerkatua.
- * Honen aurrean, ekoizleek proposamen ezberdinak adierazi dituzte, hona hemen hauetariko batzuk:

- * Azokari toki egoki bat aurkitu, jendea errazago joango den kokaleku bat.
- * Saltzaileen kontrol bat, gaur egun joaten direnak kuota ordaintzen dute, beste batzuk saltoki iraunkorretara eramaten dute produktua, horrela ez dute ezer ordaintzen.
- * Turismoaren artean azokaren informazioa zabaltu.
- * Salmentarako ekoizle gehiago aurkitu.
- * Ekoizlea zaindu.
- * Eroslearentzat eta ekoizlearentzat erosotasuna aurkitu.
- * Bertako eta garaiko produktua sustatu.
- * Zumaian baratzea indartu. Azokan dagoen ekoizle falta ikusita, Zumaian baratzea landuko duten ekoizle ezberdinak bilatu.

6. BEHARRAK, PROPOSAMENA, ESKAERAK.

Bildu garen 32 ekoizleren (Zumaia-koak eta kanpokoak) beharrak, proposamenak edota eskaerak hartuko ditugu kontuan.

Atal hau aztertzerakoan, egokiena banaketa bat egitea iruditu zaigu, hau da, alde batetik ekoizleak auzoka banatu ditugu eta auzorako egin dituzten ekarpenak sailkatu ditugu eta beste puntu batean, egin dituzten ekarpen orokorrak. Hau horrela, azpi atal hauetan banatuta gelditu da: Oikia, Arritokieta (diseminados ere hemen sartu dugu), Artadi, Txikierdi, Basustagain, Elorriaga (Zumaia-ara ez dira egiten) eta orokorrak.

Dena den, txosten honen amaieran, hitz egin dugun baserritar guztien elkarriketen transkripzioak daude, horrela eskaera guztiak ikusi ahal izango dira, guk hemen aipatutakoez gain.

6.1 OIKIA:



Oikia auzoan 16 bizilagunekin elkartu gara. Ondoren zerrendatu ditugu auzo honetan azaldu diren behar, proposamen edota eskaerak:

1. Errepideak: Alde batetik errepideen konponketa bat eskatzen dute eta bestetik errepideen bazterren garbiketa bat.

2. Plastiko bilketa: Plastiko biltetarako puntuaren azterketa bat eta bestetik auzoan beste puntu bat gehiago jartzea.

3. Gunea: Baserritarrek biltzeko gune/gela bat.

4. Frontoia: Frontoiaaren konponketa bat.

5. Bidegorria: Zumaia-Oikia bidegorria.

6.2 ARRITOKIETA:



Arritokieta auzoan hiru bizilagunekin elkartu gara. Elorriaga auzoan agertzen diren baserriak honen nukleo berdinean daude, halere berezita jarriko ditugu.

1. Zirkulazioa: Beraien etxetik herriraino jaitsi ginen bertako gabeziak ikusteko eta hobeto jasotzeko.

* Aldapa hasieran, linea jarraitua dago, aparkatzeko debekatua dagoen seinalea eta inork ez du errespetatzen. Goian dauden baserrietara joan behar duten kamioiek ezin dute igo, udaltzaingoek arazo honen berri badaukate eta beraien erantzuna arazo honen aurrean: kamioiak joan behar duenean hiru egun lehenago deitu eta autoak kenduta egongo dira. Hau ez da soluzio bat, askotan ez baita jakiten aurretik kamioia noiz joango den. Arazo honi erantzun bat eman.

* Aurrerago dagoen STOP seinalearen parean, bidegurutzean ez da ezer ikusten, arazo horri ere konponbidea.

* Gorago joan eta harrizko paretan harri guztiak erortzen ari dira. Hor sare bat jartzeko eskaera luzatzen du. Sarea jarritz gero, hor aparkamenduak egitea izango litzateke egokiena, horrela lehenengo puntuan aipatutako arazoari ere irtenbidea eman ahal izango litzateke.

* Santa Klaratik gora doan errepide bazterrak garbitu, ura ondo desbideratu eta bidea ondo jarri, gaur egun ur denak kanpora egiten du eta errepidea guztiz pitzatzen eta hondatzen ari da.

* Agerretik gora dagoen puntu batean autoak aparkatzen dute, seinalea dago ezin dela bertan aparkatu eta ez dute kasurik egite. Puntu hori da zaborra biltzen duen kamioiak buelta ematen duena eta autoak egotean ezin dute maniobra hori egin. Honez gain, beraiek ere traktoreekin eta bestelako makinariarekin ezin dute lan ondo egin.

2. Errepidea: Konponketa, margotze eta garbiketa lanak burutzea.

3. Pasoa: Langen ordeztu, lurteko pasoa kanariarrak jartzea.

4. Talaia ibilbidea: Zerbait egin beharra. Aurrera doa prozesua eta beraientzat kaltegarria da. Ezi dute akordio batetara iritsi, nahiz eta beraiek soluzio ezberdinak azaldu dizkien enpresari.

5. Turistak: Puntu honen barruan hiru eskaera ezberdin jaso ditugu:

* Edozein tokitan kanpatzen dute eta zerbait egin.

* Txakurrekin joaten direnak, txakurrak lotuta eramatea.

* Hondakinentzat ontziak jarri, puntu estrategiko ezberdinetan.

6. Herriko uraren beharra daukate.

6.3 ARTADI:



Auzoan hiru bizilagunekin elkartu gara.

1. Errepidea: Errepidea konpondu beharra dago.

2. Hondartza: Hondartzara etortzen den jendeak kotxea auzorako bidean edozein tokitan aparkatzen dute, zerbait egin, kontrolatu.

3. Zabor ontziak: Gehiago jarri, gaika sailkatu ahal izateko eta toki egokietan.

6.4 TXIKIERDI:



Txikierdin hiru bizilagunekin elkartu gara.

1. Errepidea: Errepidea konpondu beharra dago.

2. Herriko ura bertara iristea.

6.5 BASUSTAGAIN:



Bizilagun batekin elkartu gara.

1. Errepidea: Errepidearen konponketa bat.

6.6 ELORRIAGA:



4 biztanlerekin elkartu gara.

Etxebizitzak, esplotazioak ez dute Zumaiaiko lurretara ematen, baina beraiek etxerako bidea Zumaiaitik daukate eta beraien eguneroko bizia ere Zumaian egiten dute. Arrazoi honegatik, interesgarria iruditzen zaigu beraien iritzia eta beraien beharrak

jasota edukitzea.

1. Errepidea: Garbiketa bat, bide hertzetan eta bestetik konponketaren bat ere. Iparragirreko bihurgunearen konponketa.

2. Zaborra: Gaikako bilketa egin ahal izateko ontziak jarri.

3. Zirkulazioa: Beraien etxetik herriraino jaitsi ginen bertako gabeziak ikusteko eta hobeto jasotzeko. (Arritokietan egon den eskari berdina da).

* Aldapa hasieran, linea jarraitua dago, aparkatzeko debekatua dagoen seinalea eta inork ez du errespetatzen. Goian dauden baserrietara joan behar duten kamioiek ezin dute igo, udaltzaingoek arazo honen berri badaukate eta beraien erantzuna arazo honen aurrean: kamioiak joan behar duenean hiru egun lehenago deitu eta autoak kenduta egongo dira. Hau ez da soluzio bat, askotan ez baita jakiten aurretik kamioia noiz joango den. Arazo honi erantzun bat eman.

* Aurrerago dagoen STOP seinalearen parean, bidegurutzean ez da ezer ikusten, arazo horri ere konponbidea.

* Gorago joan eta harrizko paretan harri guztiak erortzen ari dira. Hor sare bat jartzeko eskaera luzatzen du. Sarea jarritz gero, hor aparkamenduak egitea izango litzateke egokiena, horrela lehenengo puntuan aipatutako arazoari ere irtenbidea eman ahal izango litzateke.

* Santa Klaratik gora doan errepide bazterrak garbitu, ura ondo desbideratu eta bidea ondo jarri, gaur egun ur denak kanpora egiten du eta errepidea guztiz pitzatzen eta hondatzen ari da.

* Agerretik gora dagoen puntu batean autoak aparkatzen dute, seinalea dago ezin dela bertan aparkatu eta ez dute kasurik egite. Puntu hori da zaborra biltzen duen kamioiak buelta ematen duena eta autoak egotean ezin dute maniobra hori egin. Honez gain, beraiek ere traktoreekin eta bestelako makinariarekin ezin dute lan ondo egin.

4. Talaia ibilbidea: Zerbait egin beharra. Aurrera doa prozesua eta beraientzat kaltegarria da. Ezi dute akordio batetara iritsi, nahiz eta beraiek soluzio ezberdinak azaldu dizkien enpresari. (Arritokietan egon den eskari berdina da).

5. Turistak: Denboraldi altuetan, jende asko ibiltzen den denboraldian, norbait jarri kontrola eramateko, dena apurtzen eta zikintzen dute. Nahi dutena egiten dute.

6.7 OROKORRAK:

Erabat ados azaldu dira hitz egin dugun ekoizleak: Udala eta baserritarren arteko erlazioa sendotu behar da.

Ondoren zerrendatuta daude ekoizleen proposamen, behar edota jaso diren eskaera ezberdinak:

1. Identifikazioa: Auzo ezberdinetan agertu den eskaera bat da, baserriak beraien izenez identifikatzeko kartelak jartzea, bidegurutzetan edota sarrerako bidean.

2. Lurrak: Herriaren jabegoan eta erabilerarik ez duten edota abandonatuta dauden terrenoei irtenbidea ematea. Ekoizle asko agertu dira lurren faltan, lur gehiagoren beharrean.

3. GPS koordenadak: Udaletik lanketa bat eginez, ustiaketa/baserri guztiei dagozkien GPS koordenadak eman; askotan helbidearekin nahasketak sortzen dira eta.

4. Jabego pribatua: Denboraldi batzuetan besteetan baino gehiago, kanpoko turistak ez dute ezer errespetatzen, ezta jabego pribatua ere. Horri aurre egiteko laguntza, seinaleztapen gehiago jarritz, denboraldi altua denean pertsona bat jarri...

5. TAO zerbitzua: Gai honekin gehien bat Zumaian erroldatuta ez dauden ekoizleei kezkatzen die. Beraiek bizia Zumaian egiten dute, baina ezin dutenez bertan erroldatu ezin dute ezta ere TAO zerbitzuko herritar txartela atera. Begirada bat eman eta ea irtenbideren bat ematerik badagoen.

6. Orokorrean, Zumaian erroldaturik ez dauden baina bizia Zumaian egiten duten ekoizleei kezkatzen die ezin dutela bizi normal bat eman Zumaian, adb. (osakidetza zerbitzurik ez dute, beraien errolda herrira joan behar dute, ikastolarako garraio zerbitzurik ere ez dute...).

7. EKINTZA PLANA.

EKINTZA	EPE LABURRA	EPE ERTAINA	EPE LUZEA	ARDURADUNAK	BESTE ARDURADUNAK
Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu	X			Udala	Baserritarrak, Urkome
Sektorea aktibatu		X		GFA	Udala, Urkome, Fraisoro, Hazi
Lurren eskuragarritasuna bultzatu		X		GFA	Udala
Azokaren egoera	X			Udala	Urkome
Landa eremuko errepideen konponketarako lehentasun zerrenda bat egin	X			Udala	Urkome
Landa eremuko beharren zerrenda	X			Udala	Urkome
Bertako produktuen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu		X		Udala	

Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu	X	Udala	Urkome, ostalariak, Zumaiaiko Ostalarien elkarte
Herriko dendariekin elkarlana sustatu	X	Udala	Urkome, dendariak, Zumaiaiko dendarien elkarte
Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu	X	Udala	
Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin	X	Udala	Urkome
Sentsibilizazio kanpainak	X	Udala	Urkome

Taula 17. Ekintza plana.

1. Udala eta baserritarren arteko harremanak errazteko bideak jorratu.
2. Sektorea aktibatu, gaztea sartu: 1.sektorean gazte, langabetu eta ikasleen txertaketa bultzatu. Ondorengotza falta handia ikusi da elkarriketak egin ondoren. Elkarlanerako sare bat sortu udala eta eragile ezberdinen artean.
3. Lurren eskuragarritasuna bultzatu: Lurren beharrean dauden ekoizle eta ekoizle berriak eskuragarri edukitzea.
4. Azokaren egoera: Azokaren egoera hobetuko dituen pausoak egin (ekoizle berriak, espazioa...).
5. Landa eremuko errepideen konponketarako lehentasun zerrenda bat egin: Zerrendatu konpontzeko dauden errepideak bakoitzaren lehentasunaren arabera. Orden hori jarraituz, konponketak burutzen joan.
6. Landa eremuko beharren zerrenda: Zerrenda bat egin eta urteen poderioz zerrenda horretako beharrak asetzen joan.
7. Bertako produktuen ekoizpena sustatuko duten irizpideak lehiaketa publikoetako pleguetan sartu: Eraikuntza publikoetako jangelak, jatetxeak edota tabernak lehiaketara ateratzean, balorean jarri bertako produktuen erabilera.

8. Ostalaritzako eragileekin elkarlana sustatu: Herriko taberna eta jatetxeak bertako eta garaiko produktuak erabiltzera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta ostalarien artean.

9. Herriko dendariekin elkarlana sustatu: Herriko dendetan bertako eta garaiko produktuen salmenta egitera bultzatu. Elkarlanerako sare bat sortu udala, Urkome eta dendariekin.

10. Herriko bazkari kolektiboetan bertako produktua sustatu.

11. Udalerrian propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ikusgarriak egin: Toki ezberdin eta estrategikoetan bertako produktua eta azoka bultzatuko dituen propaganda, informazio eta komunikazio kanpaina ezberdinak gauzatu.

12. Sentsibilizazio kanpainak: Biztanleriari bideratutako elikagaien, hauen jatorriaren eta nutrizioaren inguruko sentsibilizazio kanpainak egin.